

# Oiñazea

S. Onaindia

Bideari dautsola odola zanbulu...  
Ez zaitez koldar! Begi emon! Ez dakusu?  
Kristo'k itxia  
samiña dozu,  
oiñatz bizia!  
Osoro da nekaitza, goi-aintzaz betea,  
azkenik ez daun zero zorion bidea!

Kristo'ren zauri laruak dituzu —ez uka!—  
betirauneko lelo lez, argi jaurtika:  
ortik ikusten  
zelai bikaiñak,  
dana edertzen...  
Eta Lurreko zelai unetan liliak  
jarten yatazan zero odolez jantziak.

Suntsitzaille gezirik ez dauka Jainkoak  
bere eskuetan, eta bai maite pikoak.  
Jainko eskuak  
zauritu doguz  
erru bakoak.  
Esku zaurtuak ezin dabe gaur zauritu,  
errukia bai dabe onbera, maitetsu.

Mundu-Euzkiak ditu apaintzen ederrez  
Lurreko gauzak millaka bizi-kolorez.  
Baiña, itzalduren  
zeru azpiko  
izarra, urren.  
Arago, aitu! ilten zidorren ditzira, ta  
Geroaren onak ikusten ez dira.

Maindira baltza edatu alako gabea,  
—mundukoa ta gogo arena, aurrean—  
liliak oro  
ubelez dira  
jazten osoro;  
inguruaren arrats eresi bikaiña,  
ezustean oi da urtu, itzali min aiña.

Ortzi sapaian, ikus, gozo baizen lerdan,  
ñirñir barriak yakuz alaiki erneten;  
kai-argi urrin,  
—erakarleak,  
gauaren sorgin—.  
Goiko aberrirako bide gidariak,

illun-mamarroaren aienatzailliak.

Egia dautort: zerbait alai esan naiez,  
naiz-eta ez idoro biotzaren pozez,  
ezerk ez gaitu  
zerurantz miñak  
aiña biurtu.

Orla dagi gauak be, orduen ozkirriz,  
samin-gauak orixe, goira itzul-eraziz.

Ugoldeak zelaia azpian artzean,  
jentea da kokatzen goitxoko unean;  
orixe dogu,  
ain zuzen bere,  
gauaren frutu:  
beeko lokatza itxirik, zerurantz eragin,  
giza-xede sotilla zerua izan dadin.

Ez zaitetz urrun-azi oiñaze bidetik,  
miñik geienak, zurl, bai datorkizuz ortik.  
Egiz samiña  
iñolaz bere  
Jaunak egiña.

Askok, baiña, geiegi dauskue pairatzen,  
Jaunak nai bezela ez bait dabe sufritzen.

Ibar-landetan zear igaroz ekaitzak  
nekegaitz erre ditu sekulako autsak;  
loretzan dabil,  
usain gozozko  
odeiz biribil.

Oar: giz-arimetan ez dozu bardiña  
garratz estutzen dauan kez karen samiña?

Miñik geien gizonak abere mordoskan.  
«Negar dagiana» ez ete da egitan?  
Gazte!, erostaz...  
Eta txoriak,  
zergaitik kantaz?

Ilkor diran arimak dabilta kantari;  
il-eziñak, oster, dagoz negarrari.

Aldiko atsegiña, gerokoa baiño,  
Jaunari emotea al yako zaillago?  
Izana baiño  
zoria ete  
garestiago?

Ai!, bizitz-ezkutua ez dot nik ulertzen  
oiñaze-ezkutua ez ba'dot sumatzen.

Izpillu txit narea itxas edatua,  
bertan da begiratzen lerdengi zerua.

Ulertzen ete  
diñotzudana  
nik opa beste!

Nare ba'lego beti, txoriak usteko  
zerua, ta arrisku leukee cndatzeko.

Gizonoi litzakigu tentaldi gorena,  
arriskueta, ai!, arriskutsuena;

tentaldi bako  
mundu jabala,  
arin, ergelto;

Aberri lirudiken erbeste begiko,  
Zeru antza leukaken Lur arnas beteko.

Biotz ederduna da gure Goiko Jauna,  
zoriontasun betez dan-dana dauana.

«Sasiz» asea,  
alan be, dauka bira guztia.

Arantz-ziztarik ete? Zeure barrenean  
or dozu —zagoz ziur— Jainkoa ur-urrean.